

PLaza

Galeusca ›



Euskal Herriko, Galiziako eta Herrialde Katalanetako literaturako iruditeriaren iturriak aztertu zituzten atzo Lugon egiten ari diren Galeuscan. ARANTZAZU MUÑO

Iruditeria identitatearen muin

Euskal literaturako gaiez aritu zen Iratxe Retolaza, besteak beste lamiiez, herriaz, auzoez eta portuaz

ARANTZAZU MUÑO

Lugo ■ Berriemaile berezia

Idazleek sortzen duten bakoitzean darabilten arren, askorik jorratu gabeko gaia dirudi literaturako iruditeriarenak, eta era askotako gogoetarako abiapuntua izaten ari da egunotan Lugon (Galizia) egiten ari diren Galeusca galizierazko, katalanerazko eta euskarazko idazleen kongresuan. Iruditeriaren iturriak aztertze hiru hitzaldi izan ziren atzoko saioan. Herrialde bakoitzetik ordezkari bat jardun zen: Iratxe Retolaza Euskal Herriko, Alfons Llorenç Herrialde Katalanetatik eta Xose Miranda Galiziatik. Hitzaldi hasieran hirurek aitortu zuten gaia arrotz samar zitzaila: «Izenburuak berak harritu egiten nau. Gai zabala da oso, eta gainera, milaka eta milaka ertzetatik tiraka eginez jorra daiteke». Bakoitzak gaiaren bere interpretazioa egin zuen, baina denek egin zioten erreferentzia

mitologiari; nola klasikoari, hala garaikideari.

Iratxe Retolazak etortzerik izan ez duenez, Gerardo Elortza Euskal Idazleen Elkarteko lehendakariordeak irakurri zuen haren txostena. Iruditeriaren iturriek euskal literaturan egin duten ibilbidea azaldu zuen Retolazak. Antropologia eta soziologiaren artean kokatu diren ekarpenetara hurbiltzen da iruditegiak idazleak duen ikuskera: «Iruditeriak bi bide har ditzake. Batetik, botereak erabil dezake iruditeria indarrean dagoen errealitate sozial hori legitimatzeko; eta bestetik, indarrean den errealitate hori eraldatzeko asmoz energia soziala mugiaraz dezake iruditeria berriak sortuz». Bi bide horietan iruditeria etengabe gaurkotzea eta egokitzea beharrezkoa dela gaineratu zuen.

Euskal literaturaren iruditerian oso gai garrantzitsua da ura, eta behin eta berriz errepikatu zuten elementu hori hitzaldian zehar. Lurreko urekin harreman estua duten izaki mitologikoen artean lamiak aipatu zituen, euskal iruditegiko parte bilakatu direnak: «Erreka eta lamiak denboraren iragaitearen sinbolo dira, eta bizitzaren iragaitea adierazten du-

ten neurrian, heriotzaren etorrera ere adierazten dute». Bestetik, zeruko uretatik, hau da, ekaitzetatik eta euri jasetatik datozen izakiak daude: Ortz eta Mari. Retolazak Anuntxi Aranaren teoria ekarri zuen gogora. Haren arabera, bi izaki mitologiko horiek, eta baita ekaitza eragiten duten beste guztiak ere dibinitate beraren aldearaz dira.

Izaki mitologikoak alde batera utzi eta beste irudi bat oroitu zuen Retolazak: Gernikako arbola. Haren esanetan, bi irakurketa izan zituen erromantizismo garaian: batetik, naturaren elementu egonkorra irudikatzen zuen, lurrari sendo erroturikoa; eta bestetik, indarrean egon zen egitura sozial bati egiten zion erreferentzia, Fo-

«Erreka eta lamiak denboraren joanaren sinbolo dira eta heriotzaren etorrera ere adierazten dute»

«Portuan egiten dute topo kulturek; hor komunikatzen gara munduarekin eta mundua gurekin»

IRATXE RETOLAZA
IDAZLEA

ruei. «XX. mende hasieran presen- te egon zen Gernikako zuhaitza iruditeria kolektiboan, batez ere Eusko Alderdi Jeltzaleak zabalduriko iruditerian, alegia, abertzale- tasun katoliko horrek sorturiko euskalduntasunaren irudiarekin estu-estu egin du bidea».

HARRITIK EUSKAL HIRIRA. Mitoen ukatzeak, indarrean den iruditeria ukatzeak, berriak sortzeko bideak zabaldu zituela azaldu zuen Retolazak eta harriari lotu zitzaioela bereziki iruditeria kolektibo berria: «Literaturari dagokionez, Gabriel Arestik sortu zuen harriari buruzko iruditeriarik osoena. Harriaren inguruko iruditeria horri askotan egin zaio erreferentzia euskal poesian».

Errota da euskal iruditeriako beste elementu bat, Retolazaren esanetan: «Errotek erreken ura baliatzen dute bere onurarako, jendartearen onurarako, eta erre- karen bideari neurri bat jartzeko modua da». Eta ura aipatuta, itsasora egin zuen berehala salto: «Eta itsasoak izan du gure iruditerian eraginik, baina, batez ere irudite- ria pertsonalean, ez hainbeste iru- diteria kolektiboan». Baina bada itsasoarekin harreman estua duen

beste irudi bat euskal iruditerian oso presente egon dena: portua. Ikur hau, Arestik sorturiko harria- ren ikurra baino garrantzi handia- gokoa da Retolazarentzat. Izan ere, «langileen topagune bihurtzen da portua, iruditeria kolektibo berria sortzeko gaitasunez betea. Por- tuan egiten dute topo kultura ez- berdinek, portuaren bidez komu- nikatzen gara munduarekin eta mundua gurekin».

Portuko topagunea galduta, tal- de identitateak beste topagune bat bilatzeko asmoarekin auzoa sortu zen, Retolazaren esanetan. Eta au- zoez eta hiriez ari zelarik, irudite- ria osatzeko asmoz erabili izan den beste irudi bat ekarri zuen gogora: Euskal Hiria. «Nahiz eta Bernardo Atxagak ez duen literaturan kont- zeptu hori defendatu, maiz aipa- tzen da Euskal Hiri hori sortzeko beharra, gune kosmopolita, ireki eta plural modura».

ELXEKO FESTA ETA 'MOURA'-K. Literatu- ra katalaneko iruditeriaren itur- rriak aztertze Elxeiko festaren nondik norakoak azaldu zituen Al- fons Llorenç idazle valentziarrak. Abuztuaren 14an eta 15ean ospa- tzen den jaiaren munduaz eta mis- terioaz aritu zen. Grezia klasikoak lehenik, kultura erromatarrek on- doren eta erlijio katolikoak azke- nik, festa horretan izan duen eragi- na esplikatut ondoren, gaur egun- go Elxeiko festak kultura eta literatura katalanean duen ga- rrantzia argitu zuen: «Hizkuntza- ren sinbolo izan da, literaturaren ikur, arbuioaren eta jazarpenaren kontrako bandera, irrazionaltasu- naren aurkako seinale. Valentziar herriaren jatorriaren zigilua da gure iraupenaren hezurramitze bizi, herrialde baten bereizgarri, herri oso baten erresistentzia in- posatutako nortasun gabetzearen aurka».

Iruditeria hitzaren esanahia azalduz hasi zen Xose Miranda idazle lugotarra. Hiztegiaren begira- tuz gero, *iruditeria* hitza ez dela agertzen esan zuen: «Ez da erreala, hau da, fabulazkoa da, fikziozkoa, irrealia, ez egiazkoa». Hala, irudite- ria ulertzeko bi aukera daudela erantsi zuen: bata, iruditeria fan- tastikotasunarekin nahastu du. Besteak, literatura guztia fikzioz- koa dela dio eta errealistatza dau- ka bere burua. Horiazalduta, irudi- teriaren hirugarren definizioa osa- tu zuen. Mirandaren hitzetan, iru- diteria ez da irudimenetik hartu behar, iruditik baino. «Nire ustez, iruditeria taldeak onarturiko irudi multzoa da, hau da, osatzen gaituz- ten mitoen multzoa». Galiziako mi- tologiako pertsonaia ezagunez ha- si zen hizketan: *moura*-k.